

## **Abotsanitz genero indarkeriaren kontra. Hondarribiko Udalari eskariak**

Indarkeria matxista behin betirako geldiaraztea eskubide soziala da eta Udalaren betebeharra genero indarkeriarekin bukatzeko neurriak hartzea.

Hondarribiko Abotsanitzen arabera, ez da inolaz ere nahikoa urtea joan eta urtea etorri indarkeria matxista salatu duten emakume hondarribiarren zenbaki hutsak, datu hutsak ematea, horiek eragozteko beste deus ere egin gabe.

Neurri zehatzak hartu behar dira indarkeria mota honekin bukatzeko eta batez ere emakumeei eragiten dien gizarte bazterkeria eta pobrezia energetikoa eragozteko.

Hauek dira Hondarribiko Udalak genero indarkeriari buruz emandako datuak.

2013: 22 kasu, 19 salaketa berri, 9 babes neurri.

2012: 17 kasu, 10 salaketa berri, 8 babes neurri.

Indarkeria matxisten kasuek gora egin dute gure herrian azken urteetan, baina hala ere, Gipuzkoako herri handienetakoa izanagatik ere, Hondarribiko Udala da berdintasun teknikaririk ez duen herri bakarretakoa.

Horregatik konpromiso zehatzak eskatzen dizkio Abotsanitzek Hondarribiko Udalari:

1.- Berdintasunareko teknikari baten figura lehen bait lehen sortzea, indarkeria matxista jasaten duten emakumeei laguntzeko programak martxan jarri ditzan. Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun Zuzendaritzak udaletxe guztiei eskaini zien 2012an zerbitzu tekniko hau martxan jartzeko laguntza, eta langile hauen kontratazioaren kostua %80an hartzen zuen beregain, urtebetez. Hondarribiko Udalak, hala ere, ez zuen laguntzarik eskatu eta ez zuen teknikaririk jarri.

2.- Berdintasun plana martxan jarri dezala lehen bait lehen, eta genero indarkeria dagoen kasuetan erakundeen arteko koordinazioa ahalbideratuko duen protokoloa martxan jartzea.

3.- Emakumeak festa eta gizarte guneetatik baztertu ez daitezen hartzen diren neurriei babesa ematea. Adibideetako bat Hondarribiko elkarte gastronomiko eta kulturalak dira. Horietako bati, Klink elkarteari, Hiriko Urrezko Intsignia eman dio aurren Udalak, nahiz eta emakumeek ezin duten elkarte horretako bazkide izan, eta ezin duten elkarte horretan sartu bazkideren baten laguntzaz ez bada. Hala ere, Urrezko Intsignia emateko ekitaldian parte hartu zuten Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztietako zinegotziak. Hondarribiko Udalak benetako konpromisoa azaldu behar die berdintasun politikei eta indarkeria matxistaren kontrako borrokari.

4.- Urtean zehar informatzeko kanpainak egiteko eskatzen diogu, gai hauetan.

- Indarkeria matxistaren biktimentzat dauden eskubide eta laguntza sozialak zeintzuk diren.

- Urjentiako egoeretan nori deitu eta nora jo daitekeen.

- Informazio guzti hau Hondarribia aldizkariko ale guztietan argi eta garbi azaldu dadila, baita Udaleko web orrian eta herriko eremu publiko guztietan ere.

5.- Gazteei zuzendutako programa prebentiboak:

2013ko datu ofizialen arabera:

- Euskal Autonomia Erkidegoan salatutako kasuen %7,6etan 17 urte baino gutxiago zituzten biktimek.

- 7 gaztetatik 1ek ez du erasotzat hartzen harremana uzteagatik jasotako mehatxuak.